

Feminismoa ezker mugimenduetan

ERALDAKETARAKO ERRESISTENTZIAK ETXETIK DATOZENEAN

Ezker eraldaketaren gurpilari makila etxeok sartzen diote sarri, bat datoz horretan Lorea Agirre, Pili Alvarez eta Jokin Azpiazu. Feminismori ezker mugimenduetatik jartzen zaizkion erresistentziez aritu ziren urte hasieran Bilbon, Rosa Luxemburg Konferentzian.



Itziar Ugarte Irizar
@itzugarte

Zergatik du generoak halako garrantzia ezkerreko mugimendu eraldatzaileetan? Zer egiten dugu menderakuntza ezberdinekin? Hala hasi zuen Lorea Agirre kazetariak eta Rosa Luxemburgen biografiaren egileak solasaldia, generoak norbanakoari gizartean ematen dion lekuaz ohartarazi eta interseksionalitateari begira jartzeko.

Luxemburgek genero eta langile zapalkuntzak azalean bizi eta salatu bazituen ere, feminismo interseksionala 80ko hamarkadan Angela Davis eta beste hainbat feminista beltz estatubatuarrek abiatu zutela azaldu zuen Agirrek. Honen arabera, zapalkuntzek elkar indartzen duten aldetik, subordinazio denetatik irteteko borroka ere interseksionalak, elkarri lotuak, behar dute izan.

Menderakuntzak esplizitatu egin behar direla adierazi zuen Agirrek, eta interpelatu, zapalkuntzaz gain, pribilegioa non dagoen esanda. Interseksionalitateak estigmatizaziotik eta biktimismotik aldentzea dakarrela azaldu zuen, eta mugimendu eraldatzaileetan

interseksionalitatea landuko bada, norbanakoek garrantzi handia dutela: “Mugimendu feministak lortu duena ezin du galdu ezkerreko mugimenduetan sartzean”.

Egun feminismoak, gizon-emakumeen arteko parekidetasunaz gain, demokraziaren garapen eta inklusio politikoaren aldeko lana egiten duela nabarmendu zuen. Olatz Dañobeitia dinamizatzaileak galdera bana luzatzeko eskatu zien hizlariei, eta ezagun dena hautatu zuen kazetariak: Izan zaitezke ezkertiar feminista izan gabe?

Erasotzailea etxean

Agirreren ondotik, Pili Alvarez soziologo eta militante feministak heldu zion hitzari. Erasotzailearen aurkako protokoloak sortzerakoan eta gizarteratzerakoan ezker mugimenduetan antzemandako zailtasunak hartu zituen hizpide. Gaurkoz protokoloak talde gutxitan lantzen direla esan zuen, are gutxiago talde barruko erasoei aurre egiteko baren protokoloak. Askok horren beharrik



ikusten ez dutela esan zuen, behiak trenari nola begiratzen diotela.

“Minkorrena da pentsatzea ezker-tiarrak garelako errazagoa izango dela protokolo bat onartzea”. Mugimendu asanbleario eta horizontaletan, metodologiaren garrantziaz ez ohartzea otopotzat du Alvarezk. Protokoloa prozesu gisa irudikatzea kostatzen dela adierazi zuen, eta “erasotzaile” hitzarekiko erresistentziak daudela. “Kide guztiok ez dugu formakuntza feminista, are gutxiago indarkeria matxistaz. Gure artean ez da entzuten ‘langileek ere zapaltzen dituzte beste batzuk’ edo ‘ezagutzen dut langile bat burgesa jo zuena’, bai ordea, neskak gure artean ere gaizki portatzen garelako edo guk ere mutilak eraso ditzakegula, eta hori egiturazko indarkeria ez ulertzea da”. Berdin frogen beharrek. Alvarezk esanetan, ohikoak dira “eta zigortzen badugu mutil bat frogatzen gabe?” bezalako galderak, neskaren iritzia zilegitasuna emateko erresistentziaren isla, Alvarezk ustetan.



Lorea Agirre, Pili Alvarez eta Jokin Azpiauren ustez, ezkerreko mugimendu orok jartzen dio erresistentzia feminismoari.

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Jai esparruan erasoen afera talde feministen eskuetan uzten dela nabarmendu zuen: “Beste eragileek hitz politikak bai, baina inplikazio eskasa. Ni nagoen talde feministan gutxi gara eta disposizio gutxi dugu, adibidez, jaietan protokoloko telefono txandak egiteko”. Eragile ugari daudenean, ordea, zaila da bermatzen protokoloaren ezagutza guztiek dutela.

Ohiko beste traba bat ere aipatu zuen Alvarezek: denbora. Taldearen lan karga eta protokoloaren kargaren arteko talkara ez dira egoten ohituta, eta protokoloak askotan ekimena gainean dagoela presaka egiten direla aipatu zuen, eztabaidatu gabe.

Espazio “askatzaileetan” ere komunikazio eredu hegemoniko arrazionala nagusi izanik, “masa isilaren” gainetik ahots batzuk nabarmendu ohi direla esan zuen ekintzaile feministak. Eta tentsioen aurrean, teorizaziotik hitz egiten dela sentimenduetatik baino, barne protokoloetan karga emozionala askoz handiagoa bada ere. Asturiasko talde feminista baten testutik irakurri zuen errazagoa dela kide historikoa irudika-

tzea, kide erasotzailea baino, eta beraz, gaizki ulertu gisa kokatzen direla, horri aurre egiteak dakarren lana ekiditeko.

Eta behin protokoloa izanda, nork inplementatu? Alvarezek ikusi ahal izan duenez, “oso jende gutxi dago prest eraso jaso duen neskari harrera on bat egiteko, eta hori da lehenengo pausoa protokolo batean”. Halere, zailtasunak zailtasun, protokoloa izatearen eta prozesutik talde kohesionatuagoa ateratzearen alde baikorrak azpimarratu zituen. Daño-beitiaren eskakizunari erantzunez, hau Alvarezen galdera: Zergatik joketzen dugu gure artean sexismorik izango ez balitz bezala? Zelan eraldatu dezakegu hori?

“Feminismoa ez da gizonona”

Gizonetik gizonera zuzendu zen Jokin Azpiazu soziologo eta ekintzailea, oro har: “Onartu dezagun, gizonok klase sozial bat gara eta egiten ditugun gauzak klase sozial horren baitan egiten ditugu; beraz, gustuko edo ez, erasotzaile horiek gure klase sozialekoak dira”.

Feminismoa sinplifikatzeko interesa eta “susmagarrien” taldetik ateratzeko presa dira Azpiazurentzat gizonen feminismoarekiko dituzten arazo nagusi bi, baita behin hiruzpalau formula ikasita, amaiera duen prozesu gisa ikustea ere. “Bizitzako ordu gehienak pasa ditut feministaz inguratuta, eta ez dut ezagutzen bat bera ere zeinarentzat feminismoa prozesu erraza izan den”. Besteak beste, pribilegioak kudeatu behar direlako: “Zer egiten dugu atetik lesbianak sartu eta gure heterosexualitatearen pribilegioa planteatzen digutenean?”.

Bata bestearen segidan eta aho bilorik gabe zerrendatu zituen gizonengan igarritako erresistentziak Azpiazuk: “Hasteko ez dugu gure burua errudun ikusi nahi. Erruaren inguruan egin den teorizazioa, kontzeptu kristau gisa, ez da gustukoa ezker mugimenduetan. Ez dut esaten errua hartu, etxera eraman, eta azkenean esatea ‘bai, nire errua da, nire errua da’ harik eta emakume batek esan arte ‘bueno lasai, ez da hainbesterako’. Aldiz, mekanismoak sortzen badi-



DANI BLANCO

» **JOKIN AZPIAZU:**
 “Feminismoa sinplifikatzeko interesa eta ‘susmagarrien’ taldetik ateratzeko presa dira gizonak feminismoarekiko dituzten arazo nagusi bi, baita behin hiruzpalau formula ikasita, amaiera duen prozesu gisa ikustea ere”



GOIENA

» **PILI ALVAREZ:**
 “Gure artean ez da entzuten ‘langileek ere zapaltzen dituzte beste batzuk’ edo ‘ezagutzen dut langile bat burgesa jo zuena’, bai ordea, neskak gure artean ere gaizki portatzen garela edo guk ere mutilak eraso ditzakegula, eta hori egiturazko indarkeria ez ulertzea da”



JAIZKI FONTANEDA / ARGAZKI PRESS

» **LOREA AGIRRE:**
 “Mugimendu feministak lortu duena ezin du galdu ezkerreko mugimenduetan sartzean”

tugu tarte batez errua esku artean hartu eta esateko ‘ze mailatan da nirea eta zer egingo dut?’, hortik topatuko ditut bi-deak soluzio politikoetarako”.

Gizon “gaiztoak” karikaturizatu eta “gizon onen multzoan” kokatu nahia aipatu zuen, bestetik. Azken sanferminak adibide: “Gaingitu beharreko gizontasun ereduak ezin da izan guardia zibil bortxatzailearena. Nahi ez dugun gizon eredu muturrera eramaten dugu, gutariko gehienak hortik ateratzeko, gure marra gorriak zeintzuk diren eta egunean zenbatetan zeharkatzen ditugun pentsatu ordez”.

Feminismora hurbildu eta “gizon perfektu” bilakatzeko nahia aipatu zuen Azpiazuk: “Etxera ailegatu eta gure heterosexualitatea 2.0. edo 3.0. praktikatuta, oso gizon berdinzaleak izan gaitezke baina sakonean gertatzen zaiguna da aurrekoan lagun batek kontatzen zidana, min-

duta dagoela bere karrera profesionala pikutara joan delako ume bat izatean, eta bere bikotearena ez”. Marina Garcés filosofoaren hitzak baliatu zituen, politika arriskuan jartzean egiten dela azaltzeko. “Politika feministan zerbait esan nahi badugu gizonok, edo ez esan, gure burua ere arriskuan jarriz izan beharko da”.

Eraso duen gizonak ez du definitzen hori eraso bat den edo ez. Hartara, egoera definitu ezina ere erresistentzia dela aipatu zuen soziologoak. “Klase sozial berean, gizon horren egoera definitzeko ezgaitasunarekin identifikatzen gara. Horregatik, gizontasunari traizio handiak edo txikiak egin beharra”.

Beste apunte bat “Denok gara feministak” leloaren harira: “Gizonok garbi izan behar dugu feminismoa ez dela gurea, agian guretzat, agian gurekin izan daiteke, gurea ez da”. Gizon dezente konpromisoa hartzeko prest ikusi arren,

hori ikusgarri egiteaz duda azaldu zuen, gizonak feminismoaren alderik ikusgarrienera ez ote diren batzen. “Lagun bat erasotzen dutenean, gizonok ematen dugun ostia matxirulo heroiko hori oso ikusgarria da, baina eraso horren ondorengo lanak ikusezinak”.

Zuzen gizonak zuzenduz amaitu zuen solasa: “Ez planteatu feminismoa gerturatzeko igerilekura buruz bota eta guztien aurrean bainujantzia erakusten ateratzea denik”. Eta Luxemburg gogoan, azken galdera, ez horregatik garrantzi gutxiagokoa: “Prest al gaude gizonok gure burua klase sozial gisa identifikatzeko eta ez soilik subjektu gisa? ‘Ni ez naiz horrelakoa’ alboratuta, gure ardura gure gain hartzeko?”. ■

» Hitzaldia osorik entzun nahi lukeenak, argia.eus-eko multimedia kanalean du eskura.